

Tabletaren zozketaren lege-oinarriak, EGAZ Txorierri (2015eko ekaina)

1.- Enpresa antolatzailea

Behargintza Txorierri, SL (EGAZ Txorierri) enpresa. Sondikan dago, Txorierri etorbidea, 46 13A helbidean (Bizkaia). B95145546 IFZ du, eta Bizkaiko Merkataritza Erregistroan dago inskribatuta: 4.030. liburukia, 126. orria, BI-30766 orrialdea, 1. inskripzioa.

2.- Parte hartzeko epea

2015eko ekainaren 11ko 15:00etatik 19:00etara bitartean parte hartuko da zozketan.

3.- Saria

7'-ko tableta bat: Asus Fonepad 7 Beltza 3G Dual SIM, Intel, 8 GB, 2 kamera.

Irabazleak ezingo du irabazitako saria beste batekin trukatu, ezta horrek eskudirutan balio duen zenbatekoarekin ere.

4.- Parte hartzeko zilegitasuna

Zozketan parte hartu ahalko dute EGAZ Txorierriko *standean* izena ematen duten pertsona fisiko guztiak. Arrasateko (Gipuzkoa) LANBAI enplegu-azokan jarriko da *standa*, 2015eko ekainaren 11n.

5.- Zozketaren funtzionamendua

Zozketan parte hartzeko, interesdunek eskakizun hauek bete behar dituzte:

1- Zozketan izena eman behar dute LANBAI enplegu-azokako (Gipuzkoa) EGAZ Txorierriren *standean*, 2015eko ekainaren 11n, izen-abizenak, telefono-zenbakia, helbide elektronikoa eta NANA adierazita.

2- Alta eman behar dute EGAZ Txorierriren lan-poltsan, www.txorierri.eu webgunearen bidez, eta gutxienez datuen % 40 bete behar dituzte (gaitasunen testa barne), 2015eko ekainaren 11ko 15:00etatik 2015eko ekainaren 21eko 23:59ra bitartean.

3- Oinarri hauetan ezarritako eskakizunak bete behar dituzte.

Zozketa egiteko, zerrenda bat osatuko da zozketan izena eman duten eta parte hartzeko eskakizunak betetzen dituzten pertsonekin. Zerrendako pertsona bakoitzari zenbaki ordinal bat emango zaio: bat zenbakia izango da lehena (hori barne), eta goranzko ordenari jarraituko zaio, zerrenda horretan ageri den erregistro-kopuru osoa bete arte. Gero, zozketa egiteko, ausaz aterako da zenbakia.

2015eko ekainaren 22an egingo da zozketa, EGAZ Txorierri. Egun berean argitaratuko da irabazlearen izena www.txorierri.eu webgunean, eta pertsona horri jakinaraziko zaio irabazi egin duela, telefonoz deituta edo mezu elektronikoa bidalita. Astebetean erantzunik jasotzen ez bada, zozkatutako sariari idatziz uko egin bazaio edo ez badira betetzen oinarri hauetan ezarritako eskakizunak, hurrengo zenbaki korrelatiboa duen pertsona izendatuko da irabazle (berdin egingo da irabazlea lortu arte).

Saria eman gabe utziko da, baldin eta oinarri hauetan adierazitako edozein arrazoi dela-eta ez bada irabazlerik lortzen, edo ez bada saria onartzen, ez bada irabazlea lokalizatzen, edo saria ez bada jasotzen EGAZ Txorierriko bulego nagusietan (Sondika).

6.- Sari-banaketa

Saria aurrez aurre emango da EGAZ Txorierriko bulegoetan, Txorierri etorbidea, 46 13A helbidean, Sondikan (Bizkaia).

EGAZ Txorierriren saria jasotzen bada, saridunak berariaz onartu eta, hala badagokio, baimena emango du bere izen-abizenak eta irudia erreproduzitzeko, erabiltzeko eta zabaltzeko edozein hedabidetan (Interneten eta hainbat hedabide grafikoren bidezko ustiapena barne, denbora-mugarik gabe), zozketarekin eta/edo EGAZ Txorierriren zerbitzuen promozioarekin lotutako sustapen-jarduerarako. Jarduera horiek ez dute emango ordainsari edo etekinik jasotzeko eskubiderik, salbu oinarri hauekin bat etorritik irabazitako saria. Ondore horietarako, irabazleak, saria jaso aurretik, eskubideak EGAZ Txorierri lagako dizkiola jasotzen duen agiria sinatuko du.

EGAZ Txorierri eskubidea du saria oraindik zehaztu gabeko egunean eta orduan emateko; irabazleari egun eta ordu horren berri emango zaio, saria irabazi duela jakinarazten zaionean. Irabazleek beren kontura ordaindu beharko dituzte sari-banaketaren ekitaldira bertaratzeko beharrezkotzat jotzen dituzten gastuak: joan-etorriak, ostataua...

8.- Baztertuak

Honako hauek ezingo dute zozketan parte hartu:

- Adingabeek edo pertsona juridikoek.
- EGAZ Txorierri enpresako langileek edo haien zuzeneko ahaideek.

9.- Datuen babesa

Bat eginez Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoak eta berau garatzen duen araudiak ezarritakoarekin, EGAZ Txorierri zozketako partaideei jakinarazten die beren datuak datu pertsonalen fitxategi automatizatu batera gehituko direla (EGAZ Txorierriren erantzukizunpean sortutakora) eta beharrezko neurriak hartuko dituela datuok ez aldatzeko, ez galtzeko eta baimenik gabe ez erabiltzeko edo eskuratzeko, betiere aintzat hartuta teknologiaren egoera. Erabiltzaileak noiznahi balio gabetu ahalko du bere datuak promoziorako erabiltzeko emandako baimena; halaber, Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoak ezarritakoari jarraikiz, bere datuetara sartzeko, horiek zuzentzeko eta deuseztatzeko, eta horien aurka egiteko legez aurreikusitako eskubideak erabili ahalko ditu, Behargintza Txorierri, SL (EGAZ Txorierri) enpresara bertarata (Txorierri etorbidea, 16 13A, Sondika, Bizkaia), 944536370 telefono-zenbakira deituta edota egaz@txorierri.eu helbide elektronikora idatzita.

10. Zerga-atxikipena

Dagokion pertsonak bere gain hartuko ditu sariaren entregari dagozkion zerga-betebeharrak, halakorik balego, aplikatu daitezkeen legeekin bat eginez.

11.- Beste ohar batzuk

EGAZ Txorierri uko egiten dio webgunea eta/edo sarea behin-behinean erabilezin edo kolokan gelditu dela-eta sortzen diren edonolako kalte-galeren gaineko edozein erantzukizuni.

Zozketa egin ezin bada (izan iruzurrak edo huts teknikoak atzeman direlako, izan enpresa antolatzaileari ez dagokion eta zozketari eragiten dion beste edozein arrazoi dela eta), EGAZ Txorierri eskubidea du zozketa bertan behera uzteko, aldatzeko edo eteteko.

EGAZ Txorierri eskubidea du ondoz ondoko aldaketak edo gehitzeak egiteko funtzionamenduan, sarian edo zozketan, betiere ez badie kalterik egiten partaideei. Aldaketa horiek behar bezala jakinaraziko dira www.txorierri.eu webgunean.

12.- Aplikatu daitezkeen legeria eta jurisdikzioa

Espainian indarrean dagoen legeriak arautzen du zozketa.

Partaideekin desadostasunak sortzen badira oinarri hauen eta horien interpretazioaren inguruan, auzitegi eta epaimahai eskudunek eskumena izango dute sor daitezkeen auziez arduratzeko.

13.- Oinarriak argitaratzea

Oinarriak EGAZ Txorierriren webgunean argitaratuko dira: www.txorierri.eu.